

## 1) Aurkezpena

### Arrixulo Aterpea

Arrixulo aterpea "Aiako Harria" parke naturalean dago. Urteak daramatza talde ezberdinekin lan egiten: ikastetxeak, udalekuak, partikularrak...

Aterpeak 80 plaza ditu, hauek gela ezberdinetan banatuta daudelarik. Horretaz gain, 100 lagunentzako jangela, taberna, audiobisual bilera gela, tailerrentzat gelak, rokodromoa eta mila gauza gehiago ditu.

### Txiribuelta

Txiribuelta hezkuntza zerbitzuak ematen dituen enpresa da. Hau kulturaren, ingurumenaren eta animazio soziokulturalaren alorrean lan egiten duten profesional talde batek sortzen du eta talde honek erabiltzen duen hezkuntza sistema berezia, berritzailea eta konpromisoduna da.

Gure kultur ekintzetan eta programetan parte hartuz gero, Aiako Harria Parke Naturalak eskaintzen dizkigun natur, kultur eta ingurumen balioez jabetuko zara eta haiez gozatuko duzu.

### Arrixulo + Txiribuelta

2010 ko neguan ezagutu ginen. Proiektu batzuk elkar prestatzen hasi ginen eta 2011an Txiribuelta taldeak ikastetxeei Arrixulon jarduera ezberdinak proposatzen hasi zen.

Udaberri horretan mila ikasle pasa ziren Arrixulo aterpetxetik eta ikusi genuen bai Arrixulo bai Txiribuelto helburuak betetzea lortu genuela: Ikasleak irribarrez joaten ziren, Ikastetxeak pozik eta balorazioak ezin hobeak izanez.

Horregatik, indarrak batu eta Udalekuak Arrixulon sortzeko asmotan lanean jarri ginen. Honen emaitza ezin hobe izan da eta 2017. urtean 3.000 ikasle pasa zirela Arrixulotik aipatu behar da.

Guzti honengatik eta hainbat arrazoiengatik aurten ere gogoak eta ilusioa lehen egunean sentitu genituen bezalakoak dira.

## 2) Helburuak

- + Gazteek esperientzia aberasgarria izatea
- + Lagun berriak ezagutzea
- + Naturaz gozatzea
- + Gure ingurua ezagutzea eta errespetatzea.
- + Natura ezagutzen lagunduko duten ekintzak aurrera eramatea.
- + **HELBURU NAGUSIA:** Haur taldearentzat, udalekuak esperientzi alai eta baikorra izatea, hau da, haurrak udalekuan ondo pasatzea da helburu nagusia besteak beste.

## 3) Aktibitateak

- + Stand Up paddle Hondarribiko hondartzan.
- + Eskalada aterpeko rokodromoan
- + Tirolina
- + Ibilaldiak
- + Hernaniko igerilekuak
- + Natur jolasak (Altxorraren bila, Herri Kirolak...)
- + Jolas Haundiak (Olinpiadak, Gynkanak...)
- + Aurkezpen jolasak
- + Kooperazio jolasak
- + Erlajazio jolasak
- + Tailerrak
- + Gaubelak, musika topera!